


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko uztaillean, Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak gora egin du, eta **6.376 langabe zenbatu dira Donostian (2.743 gizon eta 3.633 emakume)**, maitatzean baino **141 pertsona** gehiago.

- Langabezia **% 2,3 egin du gora ekainaren aldean.**
- Langabezia **% 4,6 egin du behera 2024ko uztailaren aldean.**

Uztaillean, langabeen kopuruak, aurreko urteetan gertatu den bezala, gora egin du, bai gizonen artean, baita emakumeen artean ere. Gainera, ekaineko datuekin alderatuta, langabeziaren igoera handiagoa izan da emakumeen kasuan (%3,1 emakumeentzat eta %1,1 gizonentzat).

**Aurreko urteko hilabete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du, % 4,6** (308 langabe gutxiago). 2024ko uztailarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino ( % -6,4 gizonetan eta % -3,2 emakumeetan).

|                              | Donostia | Gipuzkoa | EAE  |
|------------------------------|----------|----------|------|
| Langabezia indizea           | 7,0      | 7,6      | 9,4  |
| Gizonen langabezia indizea   | 6,2      | 6,3      | 7,8  |
| Emakumeen langabezia indizea | 7,7      | 8,9      | 11,0 |
| Genero arrakala              | 1,53     | 2,62     | 3,24 |

*Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea zertxobait hazi da, 7ra arte: 6,2 gizonen artean eta 7,7 emakumeen artean (ehuneko 1,5 puntuko genero-arrakala).*

|          | Langabezia indizea | EAErekiko aldea |
|----------|--------------------|-----------------|
| Gipuzkoa | 7,6                | -1,8            |
| Donostia | 7,0                | -2,4            |
| Bizkaia  | 10,2               | 0,8             |
| Bilbo    | 11,9               | 2,5             |
| Araba    | 10,4               | 1,0             |
| Gasteiz  | 10,8               | 1,4             |

*Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.*

|                   |         | Hiletik hilerako aldaketa | Urtetik urterako aldaketa |
|-------------------|---------|---------------------------|---------------------------|
| Langabezia totala | 6.376   | % 100                     | % 2,3                     |
| Gizonezkoak       | 2.743   | % 43                      | % 1,1                     |
| Emakumezkoak      | 3.633   | % 57                      | % 3,1                     |
| Gipuzkoa          | 27733   | % 1,9                     | -% 2,9                    |
| EAE               | 104.991 | % 1,5                     | -% 2,8                    |

*Ekainaren aldean, langabeen kopuruak gora egin du Gipuzkoan eta EAEn ere (% 1,9 eta % 1,5).*

*2024ko uztailarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (% -2,9 eta % -2,8)*

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 2. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7 uztaillean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren araberrako estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2025ko bigarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko bigarren hiruhileko datuak.

|          | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|----------|---------|-----------|---------|
| Gipuzkoa | 2,8     | 5,5       | 4,1     |
| Donostia | 3,4     | 4,5       | 3,9     |
| Bizkaia  | 6,7     | 6,7       | 6,7     |
| Bilbo    | 7,8     | 9,8       | 8,8     |
| Araba    | 5,9     | 5,2       | 5,6     |
| Gasteiz  | 5,9     | 5,2       | 5,5     |
| EAE      | 5,3     | 6,1       | 5,7     |

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 65 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

|          | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|----------|---------|-----------|---------|
| Gipuzkoa | 59,3    | 53,9      | 56,5    |
| Donostia | 59,7    | 53,4      | 56,3    |
| Bizkaia  | 59,8    | 51,2      | 55,3    |
| Bilbo    | 60,7    | 50,8      | 55,4    |
| Araba    | 63,5    | 52,3      | 57,7    |
| Gasteiz  | 63,2    | 51,8      | 57,3    |
| EAE      | 60,2    | 52,2      | 56,0    |

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko bigarren hiruhilekoa).

|          | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
|----------|---------|-----------|---------|
| Gipuzkoa | 57,6    | 50,9      | 54,1    |
| Donostia | 57,6    | 51,0      | 54,1    |
| Bizkaia  | 55,7    | 47,8      | 51,6    |
| Bilbo    | 56,0    | 45,8      | 50,6    |
| Araba    | 59,7    | 49,6      | 54,5    |
| Gasteiz  | 59,5    | 49,1      | 54,1    |
| EAE      | 57,0    | 49,1      | 52,9    |

## Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



2025eko uztailaren 31ean, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.271 langabe erregistratu dira Lanbiden (+33 ekainaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.485 langabe erregistratu dira Lanbiden (+16 ekainaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.148 langabe erregistratu dira Lanbiden (+28 ekainaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.027 langabetu erregistratu dira Lanbiden (+58 ekainaren aldean).
- 25 urtetik beherako 445 langabe erregistratu dira Lanbiden (+6 ekainaren aldean).

Langabeen kopuruak gora egin duela adin-tarte guztietan. Nabarmenezkoa da 25-34 urteko adin-tartean langabeen kopuruak izan duen hazkundea, ekainean baino 58 langabe gehiago baitaude, eta horrek esan nahi du aldi horretan hazkunde absoluturik handiena izan duen taldea dela.

### LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

|                            | Gizonak | Emakumeak | Arrakala |
|----------------------------|---------|-----------|----------|
| 25 urtetik beherakoak      | % 57,5  | % 42,5    | -15,1    |
| 25 eta 34 urte bitartekoak | % 44,4  | % 55,6    | 11,2     |
| 35 eta 44 urte bitartekoak | % 38,0  | % 62,0    | 24,0     |
| 45 eta 54 urte bitartekoak | % 43,0  | % 57,0    | 13,9     |
| 55 urtetik gorakoak        | % 42,1  | % 57,9    | 15,8     |

*Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.*

### EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

*Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.*

*Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.*

*Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.*

*Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.*

*Zehazki, uztailako datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 24 puntukoa da (%26,3 ekainean).*


*Horren arrazoia izan daiteke adin tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalak emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.*

*Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketak maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaitzitzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin tarte guztietan.*

*Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tartean) gizonen baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.*

*Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 22,3 puntu handiagoa da.*

## Langabeen hezkuntza maila



**Langabeen % 42,4ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 20k unibertsitate-ikasketak ditu** (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

**Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du** (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


## PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

|                                      | Donostia | Gipuzkoa | EAE   |
|--------------------------------------|----------|----------|-------|
| 45 urtetik gorakoak                  | %58,9    | %54,4    | %55,6 |
| 30 urtetik beherakoak                | %23,1    | %25,8    | %24,5 |
| Iraupen luzeko langabezia            | %45,3    | %45,6    | %49,8 |
| Atzeritarrak                         | %15,0    | %19,8    | %18,7 |
| EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak    | %18,9    | %17,3    | %15,5 |
| Unibertsitateko ikasketak dituztenak | %20,0    | %12,9    | %12,6 |
| DBHra arteko ikasketak dituztenak    | %42,4    | %50,7    | %53,7 |

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez ( % 18,9), Gipuzkoakoan erregistratutakoa ( % 17,3) eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa ( % 15,5).**

## Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailiek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

## Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Uztailean, Lanbiden erregistratutako emakume eta gizon langabeen kopuruak gora egin du. Hala ere, aldi horretan bertan kontratu gehiago sinatu dira eta ekainean baino pertsona gehiago kontratatu dira. Gainera, **emakumezkoen kontratazioa gizonazkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** ( % 53 ), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 31baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 12 emakume atzeritarrak ziren** (atzeritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Uztailean 9.505 kontratu sinatu dira, hau da, ekainean baino % 2,2 kontratu gehiago (204 kontratu gehiago).

2024ko uztailearen aldean, 866 kontratu gehiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 10 egin du gora.

|                           | Gizonak     | Emakumeak   | Guztira |
|---------------------------|-------------|-------------|---------|
| Hileko kontratuak guztira | 4.063 %42,7 | 5.442 %57,3 | 9.505   |
| Aldi baterakoak           | 3.018 %43,8 | 3.868 %56,2 | 6.886   |
| Mugagabeak                | 1.045 %39,9 | 1.574 %60,1 | 2.619   |
| Lanaldi partziala         | 1.257 %30,3 | 2.896 %69,7 | 4.153   |
| Lanaldi osoa              | 2.806 %52,4 | 2.546 %47,6 | 5.352   |

Kontratu horiekin 7.346 pertsona kontratatu dira, hau da, ekainean baino % 9 gehiago (1.193 pertsona gehiago).

2024ko uztailearen aldean 700 pertsona gehiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 10,5 egin du gora.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,2 kontratu sinatu ditu.

|                                  | Gizonak     | Emakumeak   | Guztira |
|----------------------------------|-------------|-------------|---------|
| Kontratatutako pertsonak guztira | 3.168 %43,1 | 4.178 %56,9 | 7.346   |
| Sinatutako kontratuen ratioa     | 1,3         | 1,3         | 1,3     |
| 24 urtetik beherakoak            | 1.382 %47,9 | 1.502 %52,1 | 2.884   |
| 25 eta 34 urte bitartekoak       | 747 %44,5   | 931 %55,5   | 1.678   |
| 35 eta 44 urte bitartekoak       | 445 %41,0   | 640 %59,0   | 1.085   |
| 45 eta 54 urte bitartekoak       | 375 %35,6   | 677 %64,4   | 1.052   |
| 54 urtetik gorakoak              | 219 %33,8   | 428 %66,2   | 647     |
| Atzeritarrak                     | 641 %42,1   | 881 %57,9   | 1.522   |

### Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen % 27,6 mugagabeak ziren (% 25,1 apirilean, %22,8 maiatzetan eta % 23,4 ekainean).
- Sinatutako kontratuen % 43,7 lanaldi murriztukoak dira (% 42,7 ekainean). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 70).
- Kontratuen % 62,5 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 23,1 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 65 emakumeak dira (%61 ekainean).
- Kontratatutako pertsonen % 20,7 atzeritarrak ziren (%19,4 ekainean). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 58 emakumeak ziren.

## Kontratuak sektore nagusien arabera<sup>1</sup>



### OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobait txikitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 19,4** sinatu ditu (% 19,5 apirilean, %20,2 maiatzan eta %19,8 ekainean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 31,7** sinatzen ditu (%36,1 apirilean, %37,7 maiatzan eta % 37,4 ekainean). Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 833 kontratu mugagabe (816 maiatzan).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 45,1 mugagabeak dira** (% 46,5 apirilean, %42,6 maiatzan eta % 44,3 ekainean)
- Kontratazioaren **partzialtasuna murriztu egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuen % 46,7 lanaldi partzialekoak dira (% 51,3 apirilean, %58,8 maiatzan eta % 50,3 ekainean).

### MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 12,5 sinatu ditu** (% 13 apirilean, %11,5 maiatzan eta % 11,6 ekainean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 12,5** (% 14,7 apirilean, % 15,3 maiatzan eta % 13 ekainean) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 19,2** sinatu ditu (%19,4 apirilean, %16,3 maiatzan eta % 17,2 ekainean).
- Merkataritzan sinatutako kontratuen % 27,6 mugagabeak dira** (%19,4 apirilean, %30,3 maiatzan eta % 26,4 ekainean).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 66,8 lanaldi partzialekoak dira** (% 64,6 apirilean, %62,7 maiatzan eta % 26,4 ekainean).

<sup>1</sup>**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

**SERVICIOS OPERATIVOS** Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (418 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (37 kontr.), higiezin-jarduerak (5 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.154 kontr.), administrazioa publikoa (34 kontr.), beste zerbitzu batzuk (147 kontr.) eta etxeetako jarduerak (569 kontr.).

## KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

|                           | GUZTIRA     | Gizonak | Emakumeak |
|---------------------------|-------------|---------|-----------|
| Lehen sektorea            | 2 (%0,1)    | %100,0  | %0,0      |
| Eraikuntza                | 89 (%3,4)   | %86,5   | %13,5     |
| Industria                 | 56 (%2,1)   | %67,9   | %32,1     |
| ostalaritza               | 833 (%31,8) | %51,6   | %48,4     |
| Merkataritza              | 327 (%12,5) | %34,3   | %65,7     |
| <b>SEIC - PERTSONAK</b>   |             |         |           |
| Hezkuntza                 | 129 (%4,9)  | %27,1   | %72,9     |
| Osasuna eta gizarte zerb. | 115 (%4,4)  | %22,6   | %77,4     |
| <b>SEIC - ENPRESAK</b>    |             |         |           |
| Zerbitzu operatiboak      | 267 (%10,2) | %53,6   | %46,4     |
| Zerbitzu operatiboak      | 802 (%30,6) | %22,7   | %77,3     |

## JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

|                           | GUZTIRA       | Gizonak  | Emakumeak |
|---------------------------|---------------|----------|-----------|
| Lehen sektorea            | 0 (%0,0)      | #iDIV/0! | #iDIV/0!  |
| Eraikuntza                | 16 (%0,4)     | %50,0    | %50,0     |
| Industria                 | 60 (%1,4)     | %61,7    | %38,3     |
| ostalaritza               | 863 (%20,8)   | %42,4    | %57,6     |
| Merkataritza              | 792 (%19,1)   | %30,2    | %69,8     |
| <b>SEIC - PERTSONAK</b>   |               |          |           |
| Hezkuntza                 | 197 (%4,7)    | %31,0    | %69,0     |
| Osasuna eta gizarte zerb. | 656 (%15,8)   | %16,3    | %83,7     |
| <b>SEIC - ENPRESAK</b>    |               |          |           |
| Zerbitzu operatiboak      | 306 (%7,4)    | %47,7    | %52,3     |
| Zerbitzu operatiboak      | 1.263 (%30,4) | %23,2    | %76,8     |

*Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,7 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).*


*Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere; Industria, hezkuntza, eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 84, % 86, eta % 92 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).*

*Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan, zerbitzu operatiboetan eta osasun sektorean. Gainera, azkenengo honetan, non kontratuen % 47,9 lanaldi partzialekoa den, mota honetako kontratuen % 84 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).*

*Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak (%0), industriak (%24) eta eraikuntzak (%14) eskaintako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 75 eta osasun-sektoreko kontratuen % 76 emakumeen kolektiboarentzat dira.*

## DSBEaren hartzaileak

Uztailean zehar **3.551 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (ekainean baino 16 pertsona gutxiago).




Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- 55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47,7 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 21,7k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30,4 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

### DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

|                             | Donostia | EAE   | Gipuzkoa |
|-----------------------------|----------|-------|----------|
| 16 - 19 urte                | %0,6     | %1,0  | %0,6     |
| 20 - 24 urte                | %2,7     | %2,8  | %2,9     |
| 25 - 29 urte                | %4,7     | %5,3  | %5,3     |
| 30 - 34 urte                | %6,5     | %7,6  | %7,5     |
| 35 - 39 urte                | %8,3     | %9,5  | %9,3     |
| 40 - 44 urte                | %9,2     | %10,5 | %10,4    |
| 45 - 49 urte                | %9,8     | %11,5 | %10,8    |
| 50 - 54 urte                | %10,6    | %11,2 | %10,8    |
| 55 urtetik gora             | %47,7    | %40,6 | %42,2    |
| barrutitik kanpora          | -        | -     | -        |
| Derrigorrezko ikasketak     | %53,1    | %60,8 | %58,4    |
| Batzilergoa                 | %8,6     | %6,8  | %6,7     |
| Lanbide Heziketa            | %22,4    | %18,5 | %20,7    |
| Unibertsitatea              | %8,0     | %4,7  | %5,0     |
| Informaziorik gabe          | %8,0     | %9,2  | %9,2     |
| Lanaren osagarritasuna      | %21,7    | %20,3 | %21,5    |
| Oinarrizko DSBE modalitatea | %78,3    | %79,7 | %78,5    |
| Gizonak                     | %41,8    | %42,2 | %41,8    |
| Emakumeak                   | %59,3    | %57,8 | %58,2    |

## DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



### DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

| Auzoak             | Hiritar kopurua | DSBEaren hartzaileak | Auzokide guztiekiko % |
|--------------------|-----------------|----------------------|-----------------------|
| Aiete              | 14.066          | 139                  | %0,99                 |
| Altza              | 19.517          | 562                  | %2,88                 |
| Amara Berri        | 29.377          | 415                  | %1,41                 |
| Antiguo            | 13.754          | 140                  | %1,02                 |
| Añorga             | 2.448           | 29                   | %1,18                 |
| Ategorrieta-Ulía   | 3.874           | 69                   | %1,78                 |
| Centro             | 21.352          | 349                  | %1,63                 |
| Egia               | 14.208          | 352                  | %2,48                 |
| Gros               | 17.563          | 284                  | %1,62                 |
| Ibaeta             | 9.721           | 129                  | %1,33                 |
| Igeldo             | 1.040           | 7                    | %0,67                 |
| Intxaurrondo       | 15.010          | 506                  | %3,37                 |
| Loiola             | 6.073           | 180                  | %2,96                 |
| Martutene          | 2.592           | 80                   | %3,09                 |
| Miracruz-Bidebieta | 8.565           | 287                  | %3,35                 |
| Miramón-Zorroaga   | 2.302           | 22                   | %0,96                 |
| Zubieta            | 292             | 1                    | %0,34                 |